# 16. UNITATEA

# *LEHENGO ISTORIOAK KONTATZEN*



PROGRAMAZIOA: 16. UNITATEA *LEHENGO ISTORIOAK KONTATZEN*

| HELBURUAK | JARDUERAK | EDUKIAK | TREBETASUNAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ENTZUM | IRAKUR | ELKAR | MINTZ | IDAZM |
| Gertaera labur baten kontaketa uler dezake, ezagunak diren hitzak eta oinarrizko esamoldeak erabiltzen badira eta keinuz laguntzen bada.<br><br>Esaldi eta esamolde sinple eta bananduak idatz ditzake.<br><br>***Lehengo gertaeren kontaketa laburra ulertu eta bizpahiru esalditan esan ahoz eta idatziz.*** | ***Aurkezpen jarduerak:*** 1. eta 2. jarduerak<br><br>***Trebatze jarduerak:*** 3. jarduera<br><br>***Aplikazio jarduerak:*** 4. eta 5. jarduerak | *Aditza: Lehenaldia*<br><br>*Antolatzaileak: denborazkoak* | | | | | |

PROGRAMAZIOA: 16. UNITATEA

*LEHENGO ISTORIOAK KONTATZEN*

1. JARDUERA

*Abestia entzun, ulertu, ikasi eta abestu:*

BALEAREN BERTSOAK

Mila bederatzirehun eta
lehenengo urtean
Maiatzaren hamalau
garren egunean
Orioko herriko
barraren aurrean.
Balea agertu zen
bederatziak aldean.

______________________

______________________

Bost traineru joan ziren
patroi banarekin.
Mutil bizkor bikain
guztiz onarekin.
Manuel Olaizola
eta Loidirekin.
Uranga, Atxaga ta
Manterolarekin.

______________________

______________________

Bost txalupa jiran ta
erdian balea
gizonek egin zuten
bai nahiko pelea.
Ikusi zutenean
hil edo itoa
lehorretikan bazen
biba ta txaloa.

______________________

______________________

2. JARDUERA

*Abestia entzun, ulertu, ikasi eta abestu:*

Ameriketara joan nintzen

zentimorik gabe

handik etorri nintzen maitia

bost miloien jabe.

Txin, txin, txin, txin,

diruaren hotsa,

harexek ematen dit maitia

bihotzean poza. (Bis)

3. JARDUERA

*Jorge Oteizaren bizitzari buruzkondatu hauek irakurri eta galderei erantzun:*

JORGE OTEIZA



Orion (Gipuzkoan) jaio zen 1908an. Euskal Herriko eskultore handienetako bat izan zen. Poesia ere idatzi zuen. Oteizaren obrak euskal artea modernizatu zuen.



Oteiza eta Chillida haserre egon ziren 40 urtetan. 1997an adiskidetu ziren.

Jorge Oteiza 2003ko apirilaren 9an hil zen.



Jorge Oteizaren obra Alzuzako (Nafarroa) museo honetan dago.



- Non jaio zen Jorge Oteiza?

___

- Zertan egin zuen lan?

___

- Noiz arte egon ziren haserre Oteiza eta Chillida?

___

- Noiz hil zen Jorge Oteiza?

___

- Non dago bere obra?

___

4. JARDUERA

*Idatz ezazu bost lerrotan zure bizitzari buruzko datu garrantzitsuenak: Non eta noiz jaio zinen? Zenbat anai-arreba zarete? Nora joan zineten?Zein zaletasun dituzu?*

____________________________________

____________________________________

____________________________________

____________________________________

____________________________________

____________________________________

5. JARDUERA

*Konta iezaiezu besteei (ahoz) zuri edo ezagun bati gertatutako pasadizuren bat: zerbait barregarria edo beldurgarria edo istripu bat....*

*Behin batean...*

*Orduan...*

*Gero...*

*Azkenik....*